



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Alegazioak ezestea eta Basauriko HAPOko AI-06 jarduketa integratua urbanizatzeko jarduketa-programa behin betiko onartzea.

Basauriko Udaleko Alkatetzak, 2024ko urriaren 9ko 3784/2024 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, Basauriko HAPOko AI-06 jarduketa integraturako Urbanizatzeko Jarduketa Programari (JUP) dagokionez, honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Ezestea Basozelai 20ko JEK (IFZ: H48643043) eta Trocabide, S.L.k (IFZ: B48992960) aurkeztutako alegazioak., ebazpen honen azalpen-zatian azaldutako arrazoiengatik.

Bigarrena: Bidebi Basauri, S.L.k aurkeztutako Basauriko HAPOko AI-06 Jarduketa Integraturako Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin betiko onartzea.

Hirugarrena: AI 06 Urbanizatzeko Jarduketa Programaren behin betiko onarpena Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, edukien laburpenarekin batera..

Era berean, espediente osoa eskuragarri egongo da Udal honen egoitza elektronikoan [<https://www.basauri.eus>].

Laugarrena: Ebazpen honen edukia eremuaren jabe diren ondasun eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN EDUKIAREN LABURPENA JARDUERA INTEGRATUA AI 06

- Eremua: Basauriko HAPOren AI-06 jarduketa-integratua.
- Saillapena: Hiri-lurzorua.
- Erabilera globala eta kalifikazioa: bizitegia.
- Esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna: 3.034,26 m²s:
 - Etxebizitza librea: 2.848,08 m²s.
 - Merkataritza lokala: 186,18 m²s.
 - Garaje/trasteleku librea: 1.452,82 m²s.
- Etxebizitza kopurua: 28 (8 alde aurretik AK).
- Egikaritzeko Sistema: lankidetzak.
- Urbanizazioaren aurrekontua eta AK eraikinak: 1.266.645,43 euro (BEZik gabe).
- Programazioa:
 - Birpartzelazio Proiektua aurkezteko epea: urte bete, Hiritatze Jarduketa Programa behin betiko onartzen denetik.
 - Gunean hartutako ondasun eta eskubideak eskuratzeko epea: lau urte, Hiritatze Jarduketa Programa behin betiko onartzen denetik.
 - Eremua urbanizatu eta ateratzen diren orubeak eraikitze epea: lau urte, gunean hartutako ondasun eta eskubideak eskuratzeko direnetik.
- Bizitokiak eskura jartzea: Birpartzelatze Proiektuan zehaztu beharko da.

Egintza hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako dagokion Epaitegian.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio orain jakinarazten den administrazio-egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean,



jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Berraztertzeko errekurtsio hori administrazio-isiltasunez ezetsitzat joko da, baldin eta, errekurtsioa jarri zenetik hilabete igaro ondoren, ez bazaio ebazpenaren berri ematen. Azken kasu horretan, jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, administrazio-isiltasunez ezetsi zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Errekurtsoen araubide honen oinarri juridikoak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan daude, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluekin, bai eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.1 artikuluan ere, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan.

Hori guztia, bere eskubideak hobeto defendatzeko egoki iritzitako beste edozein akzio edo errekurtsori kalterik egin gabe.

Basaurin, 2024ko urriaren 16an. — Alkatea, Asier Iragarri Basaguren